



JOAN MARI TORREALDAI BEKA Oinarriak

Joan Mari Torrealдай Beka kultur ikerketak eta egitasmoak sustatzeko sortu zen, bereziki Joan Mari Torrealдай jorratu zituen esparru nagusietan. 2026ko hirugarren edizio honetan, Jakín Fundazioak eta Usurbilgo Udalak deialdia egin dute hemen zehazten diren oinarriekin:

1. 2026ko beka deialdiaren gaia “**Euskara adierazkorra lantzeko bide berriak**” izango da:

Joan Mari Torrealдай euskara batuaren bultzatzaileetako bat izan zen, eta euskararentzako eredu estandarra sortu eta sozializatzeko borrokaren parte ulertzen zuen edozein erregistrotan hizkuntza zaindu eta adierazkorra erdiesteko helburua. Euskara bizi eta esanindartsua aldarrikatu zuen, eta baita elikatu ere, hitzaldien, zutabeen, saiakeren eta ikerketen bidez. **Hizkuntza guztietan bezalaxe, euskaraz ere ezinbestekoa da adierazkortasuna lantzeko kontzientziak indartzea, azpiegitura kultural eraginkorren multzoa osatzea, baliabideak eta tresnak sortu eta sozializatzea. Horri gehitzen zaio azkenaldian piztu den kezka, minorizazio egoeraren ondorioz, adierazkortasuna euskaratik lortzeko gaitasunak eta eredu adierazkorrak gizarteratzeko bideak ahultzen ari direlako.**

Hori ikusita, beraz, **premiatzko jo da, ildo horretan orain arte egindako bidea abiapuntu hartuta, gaur egungo euskara adierazkorra(k) landu eta gizarteratuko dituzten proiektuak laguntzea.** Hori norabide askotan gauza liteke, adierazkortasuna euskaraz trebatzeko bide gaurkotuak eskainiz (baliabidetegiak, estrategiak, lan-tresnak) edo gaur egungo behar komunikatibo askotarikoetarako ereduak entseatuz. Bereziiki sustatu nahi da aurkeztutako proiektuek adierazkortasunari buruzko egiturazko gogoetak izatea abiapuntu, eta proposatutako emaitzek gizartean eta hiltunengan modu eraginkorrean hedatzeko forma izatea. Horrela, bada, deialdi honen bitartez euskararen eta, bereziki, euskaldunen esanindartzeko bideak, baliabideak eta estrategiak sustatu nahi dira.

2. Bekaren bitartez egindako gogoeten edo ikerketen emaitzak askotariko formak izan ditzake: liburua, ikus-entzunezkoa, webgunea, erakusketa...
 - a. Bekaren baitan egiten den lana euskarazkoa izango da.
 - b. Emaitza dibulgazioari begirakoa izango da eta garrantzi berezia emango zaio lana gizarteratzeko egokitzeari.
3. Deialdira banaka edo taldean aurkez litezke proposamenak. Horretarako emailaz bidali beharko da eskakizuna *jmtbeka@jakin.eus* helbidera.
 - a. Proposamenak honako bi dokumentuak izango ditu:
 - i. Proposatzailearen datuak: izen-abizenak, helbidea, e-maila, telefonoa, proiektuaren izenburua
 - ii. Ikerketa-proiektua
 - b. Proposamenak bidaltzeko azken eguna 2026ko urriaren 26a izango da.
4. Ikerketa-proiektua IZENGABEA izango da eta ezaugarriok izango ditu:
 - a. Proiektuaren atalak hauek izango dira:
 - i. Izenburua
 - ii. Lanaren ikerketa esparrua eta helburua
 - iii. Proposatzaileak, edo taldean aurkeztzen bada proposatzaileek, gaiarekin duen harremana eta motibazioa
 - iv. Aurrekariak eta gaiaren gaur egungo egoera
 - v. Materialak, baliabideak eta lan metodologia
 - vi. Lana garatzeko kronograma
 - vii. Aurreikusitako emaitza, euskarria eta dibulgazio asmoak
 - b. Gehienez ere 12.000 karaktereko luzera izango du eta euskaraz idatzia egongo da.
5. Proiektuak aztertuko dituen epaimahaia deitzaileek aukeratutako lau adituk eta idazkari lana egingo duen Jakineko kide batek osatuko dute.
 - a. Balorazio prozesua itsua izango da, epaileek ez dute jakingo proiektuen egileak zein diren.
 - b. Baloratzeko erabiliko diren irizpideak hauek izango dira:
 - i. Proiektuaren originaltasuna, erakargarritasuna
 - ii. Ikerketak gizartean izan dezakeen eragina eta interes soziala
 - iii. Proiektuaren egingarritasuna
 - iv. Zehaztasun eta egokitasun maila
 - v. Proiektuak genero-berdintasuna sustatzeko egin dezakeen ekarpena
 - c. Epaimahaiaren erabakiaren arabera aukeratuko dute deitzaileek bekaren irabazlea. Erabakia deialdia itxi eta hilabetera jakinaraziko da.
 - d. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritziz gero, beka eman gabe utz dezakete deitzaileek.
 - e. 2026ko deialdiaren epaimahaiakideak honakoak izango dira: Ainara Lasa Perez, Ibai Iztueta Azurmendi, Miren Amuriza Plaza eta Gorka Bereziartua Mitxelena.
6. Epaimahaiak aholkua eman ahalko dio irabazleari, proiektua osatu eta hobetze aldera. Irabazleak konpromisoa hartu beharko du aholku horiek aintzat hartzeko.
 - a. Era berean, deitzaileek prestasuna adierazten dute eskura dituzten informazioak irabazlearen eskuetan jartzeko, ikerlana gauzatu ahal izateko.

7. Bekaren irabazleak 14.000 euro jasoko ditu lana egiteko. Diru kopuruaren erdia izendatu bezain laster jasoko du irabazleak, eta beste erdia, ikerketaren emaitza entregatu eta epaimahaikideek onespenean emandakoan.
8. Irabazleak izendapena jaso eta 18 hilabeteko epea izango du lanaren emaitza antolatzaileei helarazteko.
 - a. Irabazleak lana entregatuko ez balu, edo haren izaera eta kalitatea, epaimahaikideen iritziz, proiektuan azaldutakoen aldean nabarmen kaskarragoak balira, irabazleak itzuli egin beharko luke jasotako dirua.
9. Izendapena jaso eta 9 hilabetera, irabazlea epaimahaikideekin eta antolatzaileekin bilduko da.
 - a. Bilera horretan, irabazleak ordura arte egindako lana aurkeztu beharko du, proposatutakoa behar bezala betetzen ari dela eta egindako lanak behar besteko kalitatea duela erakusteko.
 - b. Lanaren lagin bat ere aurkeztu beharko du, azken emaitzaren zirriborro modura.
10. Diruz lagundutako lanaren jabetza intelektualak egilearena izango da. Irabazleen eta deitzaileen artean besterik adostu ezean, bekatik erator litezkeen euskarriaren jabetza antolatzaileena izango da, eta egile eskubideen ordainketa proposatutako euskarri motari dagokion ohiko moduan egingo zaio.
11. Egindako lanaren zabalkundea eta dibulgazioa helburu, antolatzaileek berariaz sustatuko dute horren gizarteratzea, betiere bi aldeek artean adostutako bideen bitartez.
 - a. Egoki ikusiko balitz, Usurbilgo Udalak gizarteratze egitasmo hori diruz lagun dezake, beti ere horretarako duen aurrekontuaren arabera.
 - b. Gizarteratze ekimen guztietan beka aipatuko da, eta bekaren, Usurbilgo Udalaren eta Jakin Fundazioaren logoak erabiliko dira.
12. Beka deialdi honetan parte hartzeak bertako oinarriak ontzat ematea dakar. Horiek ulertzeko zalantzarik balego, deitzaileei dagokie erabakitzea.
13. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendu Orokorrean ezarritakoari jarraituz, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonen datu pertsonalak tratatuko dira. Tratamenduaren xehetasunak honako hauek dira:
 - a. Tratamenduaren arduradunak: Usurbilgo Udala eta Jakin Fundazioa.
 - b. Helburua: Joan Mari Torrealdei Beka deialdiaren kudeaketa administratiboa, hautagaien balorazioa, bekaren esleipena eta ondorengo jarraipen-prozesua bideratzea.
 - c. Legitimazioa: Interesdunek deialdi honetan izena ematean eta oinarri hauek onartzean emandako baimena.
 - d. Datuen kontserbazioa: Datuak beka kudeatzeko eta eratorritako legezko betebeharrak (hala nola auditoria administratiboak zein fiskalak) betetzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira.

- e. Hartzaileak: Datuak ez zaizkie hirugarrenei utziko, legeko betebeharririk egon ezean. Halere, deialdiaren gardentasuna bermatzeko eta oinarri hauetan jasotako dibulgazio-asmoei erantzuteko, irabazlearen izen-abizenak eta proiektuaren izenburua publiko egin ahal izango dira antolatzaileen webgune zein hedabideetan.
- f. Eskubideak: Parte-hartzaileek eskubidea dute beren datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko edo horri aurka egiteko. Horretarako, idatzi bat bidali beharko dute, nortasuna egiaztatzen duen agiri baten kopiarekin (NA edo baliokidea) batera, *jmtbeka@jakin.eus* helbide elektronikora edo Jakin Fundazioaren bulegora (Martin Ugalde Kultur Parkea, Gudarien Etorbidea, 29, 20140 Andoain, Gipuzkoa).